Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2017ko martxoaren 6a, astelehena — 45 — Lunes, a 6 de marzo de 2017

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ANDOAINGO UDALA

*XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren deialdia eta deialdia arautzen duten oinarriak.*

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017.02.24an egindako batzarraldian erabaki zuen XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren deialdia egitea eta deialdi hori arautzen duten oinarriak onartu eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara ematea. Aipatutako oinarriak dira ondoren argitaratzen direnak:

Kontuan hartuta euskararen normalizazioak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, oro har, komunikazio prestu eta modernoa, kalitatekoa, Andoaingo Udalak XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, ondoko hauek direlarik aipatu sari horren oinarriak:

1. *Sariaren xedea.*

Euskarazko kazetaritzaren kalitatea, bikaintasuna eta berrikuntza bultzatzea da Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren helburua. Horrela, bada, ondoren zehazten den urtebeteko epearen barruan egin izan diren kazetaritza-lanen kalitatea eta bikaintasuna jendaurrean aitortzea eta saritzea da sari honen xedea, epaimahaiak eredugarrien iritzitako lanak sarituz.

2. *Sari-atalak.*

Ondoko bi atalotan banatzen da saria:

— XXIX Rikardo Arregi Kazetaritza saria.

— Kazetari Berria saria.

Aipaturiko bi sari horiez gain, egoki edo beharrezko iritziz gero, Epaimahaiaren Sari Berezia egiteko aukera eskura du epaimahaiak.

3. *Sari-atalen ezaugarriak.*

3.1. XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria izeneko atala.

2016ko maiatzaren 7tik 2017ko maiatzaren 7ra bitartean egunkari eta aldizkarietan, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek daukate saria eskuratzeko aukera.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Epaimahaiak, hortaz, inolako generomugarik gabe erabakiko du saria.

Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna, eredugarritasuna hala euskal kazetaritzarako nola inguruan egiten denerako.

Ondorioz, aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulu edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat horietarik edozer saritu ahal izango du epaimahaiak.

Proiektu komunikatibo osoak ez dira atal honetan sarituko, baina epaimahaiak aukera izango du Sari Berezirako kontuan hartzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN

*Convocatoria XXIX Premio de Periodismo Rikardo Arregi y las bases que regirán la misma.*

La Junta de Gobierno Local Municipal en sesión celebrada el día 2017.02.24 acordó convocar el XXIX Premio de Periodismo Rikardo Arregi, así como aprobar y publicar en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa las bases que regirán la convocatoria, bases que se publican a continuación:

El Ayuntamiento de Andoain, consciente de que la normalización del euskera precisa de un periodismo y, en general, una comunicación en euskera, ágil y moderna, de calidad, adecuada a las necesidades actuales, convoca el XXIX Premio de Periodismo Rikardo Arregi, con la colaboración económica del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, siendo las bases de la convocatoria las siguientes:

1. *Objeto del premio.*

El Premio de Periodismo Rikardo Arregi tiene como fin potenciar la calidad, la excelencia y la innovación del periodismo en euskera. Es por eso que el principal objetivo de este Premio es reconocer públicamente la calidad y la excelencia de los trabajos periodísticos realizados dentro del plazo del año que a continuación se especifica, premiando los trabajos que el jurado considere más representativos.

2. *Apartados del premio.*

El Premio está integrado por los siguientes apartados:

— XXIX Premio de Periodismo Rikardo Arregi.

— Premio Periodista Novel.

Además de conceder estos dos premios, el Jurado podrá otorgar el Premio Especial del Jurado, en caso de que lo estime oportuno y necesario.

3. *Características de los apartados del Premio.*

3.1. Apartado denominado XXIX Premio Rikardo Arregi de Periodismo.

Tienen opción a este Premio todos aquellos trabajos publicados en euskera tanto en periódicos y revistas como en publicaciones digitales, radio y televisión, entre el 7 de mayo de 2016 y el 7 de mayo de 2017.

Podrán acceder a este Premio trabajos periodísticos de cualquier clase y género, y, por lo tanto, el jurado fallará el Premio sin limitación de género.

Los criterios básicos a tener en cuenta a la hora de fallar el Premio serán los siguientes: la calidad, la innovación y la ejemplaridad de los trabajos, este último criterio tanto con respecto al periodismo vasco como al periodismo de nuestro entorno.

En consecuencia, el Jurado podrá premiar cualquier artículo o reportaje suelto o una serie de ellos, cualquier sección, cualquier reportaje de radio o televisión o serie de los mismos, así como cualquier programa, siempre que destaque por los criterios antes mencionados.

No se premiarán en este apartado los proyectos comunicativos integrales, pero el Jurado sí que podrá tenerlos en cuenta para el Premio Especial.

EK\CV GAO-I-2017-01384

3.2. «Kazetari Berria saria» izeneko atala.

Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da hau, eta, ondorioz, hogeita zazpi urtez azpikoek, hau da, 2017an, hogeita zazpi urte edo gutxiago izango dituztenek parte har dezakete atal honetan.

Herrietako aldizkari eta irrati eta telebistak, hala nola hedadura zabalagoko komunikabideak: horietatik guztietatik edozein izan daiteke 27 urtez azpikoek Kazetari Berria saria jasotzeko lana plazaratzeko erabilitako komunikabidea.

Edozein mota edo generotako kazetaritza-lanek dute saria eskuratzeko aukera. Horrela, bada, 2016ko maiatzaren 7tik 2017ko maiatzaren 7ra bitartean prentsa idatzian, agerkari digitaletan edo irrati eta telebistetan plazaratutako artikulu, erreportaje, informazio-programa, magazin eta abarren artean kalitatea eta egokitasuna kontuan hartuz epaimahaiaren iritzian bikainena denari emango zaio saria.

*4. Lanak aurkeztea.*

4.1. Sariaren bi ataletan derrigorrez aurkeztu beharko dira lanak, nahiz eta epaimahaiak lan horien artean behar adinako kalitatezkorik topatzen ez badu, beti izango du aukera proposamenak egiteko. Aurkezteko, autoreek nahiz komunikabideek hala nola sariaren helburuekin zerikusirik duen edozeinek aurkez ditzake lanak, betiere 2017ko maiatzaren 14 baino lehen aurrerago adierazten den helbidera lana bidaliz, hauetako era batean:

— Kopia bat euskarri fisikoan (papera, cd, dvd...).

— Interneten eskuragarri baldin badago, horren lotura.

— Pdf formatuko artxiboa.

Denboran luzez irauten duten lanen kasuan, gehienez 6ko lagin bat egin beharko dute, eta horien kopiak bidali.

4.2. Aurkeztutako lan guztiak argitaratu edota emititu izan direla egiaztatzeko, prentsa idatzian argitaratutako idazlanen kasuan, argitalpenaren kopia bat bidali beharko da, eta, irrati edo telebistako emanaldien kasuan, berriz, dagokion enpresak luzatutako emisio-ziurtagiria. Edozein modutara ere, nahikoa litzateke, aipatutako argitalpenaren kopia edo emisio-ziurtagiriaren ordez, lana aurkezten duenaren beraren zinpeko aitorpena igortzea, argitalpen edo emisio eguna eta komunikabidea adieraziz, edota interneten eskuragarri dagoen lotura jakinaraztea. Beste horrenbeste esan liteke agerkari digitalez ere.

4.3. Hona sarira aurkeztutako lanak bidaltzeko helbideak:

— Andoaingo Udala-Euskara Zerbitzua, XXIX Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Goikoplaza, z/g, 20140 Andoain.

— raks@andoain.eus.

4.4. Aurkeztutako lanak, edozein euskarritan aurkeztuta ere, ezingo dira berreskuratu.

*5. Sariak.*

XXIX. Rikardo Arregi Kazetaritza saria eskuratzen duenari 9.000 euro garbi emango zaizkio.

Kazetari Berria saria eskuratzen duenari 3.000 euro garbi emango zaizkio.

Gainera, lehen bi sari-ataletako saridunei Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren Xabier Laka eskultoreak egindako eskultura emango zaie, Epaimahaiaren Sari Berezia balego, Xabier

3.2. Apartado denominado Premio Periodista Novel.

Este premio está dirigido a quienes se estén iniciando en el periodismo, por lo que sólo podrán participar en este apartado del Premio los menores de veintisiete años, esto es, aquellos que en el 2017 cumplan los veintisiete años de edad o aún no los hayan cumplido.

Para poder acceder al Premio Periodista Novel para menores de 27 años, podrán presentarse trabajos realizados tanto en revistas, radios y televisiones locales, como en aquellos medios de comunicación de mayor difusión.

Podrán acceder a este Premio trabajos periodísticos de cualquier clase y género. Por lo tanto, el Jurado otorgará este premio al artículo, reportaje, programa informativo, magazín o cualquier otro tipo de trabajo que considere sobresaliente atendiendo a los criterios de calidad e idoneidad, y que haya sido publicado en prensa escrita, medio digital, radio o televisión entre el 7 de mayo de 2016 y el 7 de mayo de 2017.

*4. Presentación de los trabajos.*

4.1. Para ser tenidos en cuenta en la elección de cualquiera de los dos apartados del Premio, será requisito imprescindible la presentación de los trabajos, aunque si el jurado estima que entre los presentados no hay suficiente calidad, siempre podrán sus miembros aportar otras propuestas. Podrán presentar sus trabajos tanto las-os autoras-es, como los medios de comunicación, así como todas-os aquellas-os que tengan alguna relación con la finalidad del Premio, enviando el trabajo antes del 14 de mayo de 2017 a la dirección indicada más adelante, y de cualquiera de las siguientes maneras:

— Una copia en soporte físico (papel, cd, dvd...).

— Si el trabajo está disponible en internet, la dirección del enlace.

— El archivo en formato pdf.

En el caso de trabajos que se hayan desarrrollado a lo largo de un largo periíodo de tiempo, será el remitente quien escogerá una muestra de, como máximo, 6 de los trabajos.

4.2. Para verificar que todos los trabajos presentados se han publicado o emitido, en el caso de trabajos publicados en prensa escrita, se enviará además una copia de la publicación, y si son trabajos emitidos en radio o televisión se incluirá un certificado de emisión expedido por la empresa correspondiente. De cualquier modo, en caso de no remitir la copia de la publicación o el certificado de emisión, será suficiente con enviar una declaración jurada de la persona que presenta el trabajo, señalando en la misma tanto el medio de comunicación como la fecha de emisión o publicación del trabajo, o con señalar la dirección de Internet donde se encuentre disponible su visionado. Se actuará del mismo modo con respecto a las publicaciones digitales.

4.3. Los trabajos se remitirán a cualquiera de las siguientes direcciones:

— Andoaingo Udala-Euskara Zerbitzua, XXIX Rikardo Arregi Kazetaritza Saria, Goikoplaza, z/g, 20140 Andoian

— raks@andoain.eus.

4.4. Cualquiera que sea su formato, no se podrán recuperar los trabajos presentados a este premio.

*5. Premios.*

La/el ganadora/or del XXIX Premio de Periodismo Rikardo Arregi recibirá 9.000 euros netos.

La/el ganadora/or del Premio Periodista Novel recibirá 3.000 euros netos.

Además de estos premios, las personas ganadoras de las dos primeras categorías recibirán también una escultura de Xabier Laka, conmemorativa del Premio de Periodismo Rikardo Arregi, y

EK\CV GAO-I-2017-01384

Lakaren serigrafia eskuratuko dute. Era berean, agiri-diplomak jasoko dituzte saridun guztiek.

Sariak zatiezinak dira, baina, hori bai, taldean edo elkarlanean egindako lanei ere eman dakieke saria.

Sarietako edozein hutsik utzi ahal izango du Epaimahaiak.

*6. Epaimahaia.*

Ondorengo hauek osatzen dute epaimahaia:

— Mahaiburua: Andoaingo Udaleko Euskararen Normalizaziorako zinegotzia, Ainara Rodriguez Zalakain, edo honek bere ordezko gisa izendatutako udalkidea.

— Mahaikideak: Goio Arana, Marijo Deogracias, Maria Gonzalez Gorosarri eta Xabier Landabidea.

— Idazkaria: Andoaingo Udaleko euskara teknikaria, hizpidez baina hautespiderik gabe jardungo duena.

*7. Sariei buruzko Azken Erabakia.*

2017ko uztailaren 8an emango da aditzera sariei buruz epaimahaiak hartutako Azken Erabakia, apelaezina izango dena, Andoaingo Bastero Kulturgunean ospatuko den ekitaldi berezian.

*8. Baldintzak onartzea.*

Sari honetara aurkezteak oinarriok ontzat ematea dakar berarekin, eta saria jasotzeko nahitaezkoa izango da oinarriotan finkatutako betebeharrak osorik betetzea.

Andoain, 2017ko otsailaren 24.—Alkatea. (1384)

la ganadora del Premio Especial del Jurado, si lo hubiera, una serigrafía de Xabier Laka. Asimismo, todas/os las/os ganadoras/es recibirán un diploma acreditativo del premio.

Los premios son indivisibles, aunque, eso sí, podrán ser premiados trabajos realizados en grupo o en colaboración.

El jurado podrá declarar desierto cualquiera de los premios.

*6. El Jurado.*

El Jurado estará integrado por:

— La presidenta: Ainara Rodriguez Zalakain, concejala para la Normalización del Euskera del Ayuntamiento de Andoain, o miembro de la corporación designado por ésta como representante.

— Vocales: Goio Arana, Marijo Deogracias, Maria Gonzalez Gorosarri eta Xabier Landabidea.

— Secretario: Técnico de euskera del Ayuntamiento de Andoain, que actuará con voz pero sin voto.

*7. El fallo final de los premios.*

El fallo final del Jurado será inapelable y se hará público el 8 de julio de 2017 en una ceremonia especial que tendrá lugar en el Centro Cultural Bastero de Andoain.

*8. Aceptación de las bases.*

La participación en este Premio supone aceptar todas y cada una de las bases de la convocatoria, y, para poder recibir el premio será necesario cumplir todos los requisitos estipulados en estas bases.

Andoain, a 24 de febrero de 2017.—La alcaldesa. (1384)

EK\CV GAO-I-2017-01384